



“Energia Kudeaketa Adimentsua (SEM)” eta “SEM Aditua” langile eskudunentzat (EQF maila 4/5)

Azken belaunaldiko teknologia berriak, Gauzen Interneta, robotika eta adimentsuki konektatutako objektuak bezala aukera berriak irekitzen dituzte industria eta energia merkatuentzat. Proiektu honetan murgildutako Lanbide Heziketako Euskal Herriko (CIFP Usurbil LHII + ZubiGune Fundazioa), Alemaniako (MSVE), Herbeheretako (Alfa-college) eta Suediako (Lulea Kommun) partaideen esperientziak garbi uzten dute LHko formatzaileen eskeintzak energia sektoreak eskatzen dituen gaitasun tekniko berriekin bat etorri behar duela.

Arrazoi honengatik, partaideak bat eginik lanean ari dira Europar Batasuneko Erasmus+ programak babesturiko *Energyeducation: Exploring Smart Energy Management* (2018-2020) proiektuan.

Proiektuaren helburua langile eskudunentzat Energia Kudeaketa Adimentsuari buruz prestaturiko formakuntza materialak garatzea da (EQF Level 4/5), bide batez energia aurrezten duten soluzio teknikoak diseinatzen gaitasuna emanez.

Lehen maila batean, proiektu partaideek helburu den langile eskudunentzat Energia Kudeaketa Adimentsuak (SEM) zer esanahi duen defintze da eta Energia Kudeaketa Adimentsua aditua izateko behar diren esperientzia, gaitasun eta konpetentziak azaltzea. Definizio honek, edo SEM kualifikazioak, osatzen du online bidez ikasteko moduluak (MOOC) garatzeko erabili den funtsa, proiektuaren partaideek 2020 urtearen bukaera baino lehenago hornituko dutena.

SEM definizioa eta kualifikazioa garatzeko, proiektu partaideek SEM-ari buruzko beraien esperientzia eta ezagutza eta honi buruzko literatura miaketa erabili dute. Unibertsitate eta industriako SEM adimentsuen elkarrizketak aurrera eramateko sei elementu funtsezkoak atera ziren prozesu honetatik. Elkarrizketetan ateratako informazioa ebaluatu eta konbinatu ziren ordurarte jasotako informazio osoarekin eta, honen ondorioz, SEM definizioa atera zen prozesu interaktibo baten ondoren (16 bertsio editatu ziren). Honako emaitza aurretiko definizio bat bezala hartzen da ze Energia Kudeaketa Adimentsua-ren behin betiko definizioa proiektuaren bukaerarako publikatzea aurreikusten baita.

Proiektuari buruzko informazio gehiago aurkitzeko: www.energyeducation.eu



DEFINIZIOA

Zer da Energia Kudeaketa Adimentsua?

Energia Kudeaketa Adimentsuak transformazio, metaketa, distribuzio eta kontsumo unitateetan energia aurrezten laguntzen du energia fluxuak eta kontsumitzailearen erabilera estrategikoki baldintzatuz sensore, aktuatzaile, kontrolatzaile eta erabiltzaile interfazeekin interakzio adimentsuaren bitartez.

KUALIFIKAZIOAREN DESKRIPZIOA

Ezagutza

SEM aditu batek oinarritzko ezagutza dauka ...

... energia eraldaketa, energia metaketa, energia distribuzio eta energia kontsumitzaile unitateei buruz.

Energia Kudeaketa Adimentsuko Sistemai buruz (hardware/software) sensoreen, aktuatzaileen, kontrolatzaileen, komunikazio teknologien, erabiltzaile interfazeen eta erabiltzaileen erabileren arteko interakzioen bitartez.

... energia aurrezteko estrategiei buruz.

... erregio, nazio, Europa zein nazioarteko mailako datu babes, energia eta jasangarritasunari dagokien legeriari buruz.

Gaitasunak

SEM aditu bat gai da, ...

... dokumentazio, bisita eta bertan eginiko elkarrizketen bitartez lorturiko energia produkzio, distribuzio, metaketa, energia kontsumoko unitate eta erabiltzaile portaerak analizatzeko.

... onura eta kostuen analisisian oinarrituriko energia aurrezte soluzio berriak garatzeko edo indarrean dagoen Energia Kudeaketa Adimentsuko Sistema bat optimizatzeko.

... Energia Kudeaketa Adimentsuko Sistema bat implementatu, dokumentatu, mantendu eta eskura emateko, teknologien adituak ez direnentzat ere.

Kompetentzia: Autonomia eta Ardura

SEM aditu bat gai da, ...

... konplexutasunaren arabera, bakarrik edo talde lanean Energia Kudeaketa Adimentsuko Sistemetan jarduerak ekiditeko, bai bere kabuz edo jasotako instrukzioak jarraituz.

... konplexutasunaren arabera, bakarrik edo talde lanean Energia Kudeaketa Adimentsuko Sistemetan jarduerak ekiditeko, bai bere kabuz edo jasotako instrukzioak jarraituz, instituzio desberdinen arteko eta disziplina anitzeko elkarlan baten barne.

Co-funded by the Erasmus+ Programme of the European Union



The European Commission support for the production of this publication does not constitute an endorsement of the contents which reflects the views only of the authors, and the Commission cannot be held responsible for any use which may be made of the information contained therein.